

Gazteria eta landa ingurunea Nafarroa 2022

Nafarroako gazteen landa-inguruneko balioak,
praktikak, ohiturak eta gaurkotasuna.

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



AGENDA
2030

Instituto
Navarro de
la Juventud



Nafarroako
Gazteriaren
Institutua

© Nafarroako Gobernua (Nafarroako Gazteriaren Institutua)

Ikerlana egin duen enpresa: Markemos, S.L.

Lehenengo argitalpena: 2022ko martxo

Diseinua eta maketazioa: Ana García Senosiáin

Inprenta: Astarriaga

LG NA 798-2022

Argitalpen honen edukiaren erreproduzizio partzial edo erabatekoa baimenduta dago, iturriaren aipua eginez.

Despopulazioa landa-eremuan aurrera egiten ari da Europan, estatuan eta Nafarroan. Gure herrietan biztanle gutxiago egoteaz gain, biztanle gazteen kopuruak behera egin du, eta biztanle zaharragoen ehunekoak gora. Hori erronka demografikoa da, noski. Joera hori XX. mendearen bigarren erdian hasi zen gure Komunitatean, eta, horren ondorioz, gaur egun udalerrien % 60 baino gehiago jendez husten ari dira. Gertaera horrek gizartearen eta administrazio publikoen arreta piztu du, eta hura geldiarazteko ekimenak egin nahi dira.

Herriak abandonatzeak ahaztura sortzen du, eta Nafarroako ondare- eta gizarte-memoriaren zati aberats bat galtzen da azken biztanleekin batera. Baina, aldi berean, ikusten dugu despopulazioak jotako herriek aukera ugari eskaintzen dituztela; besteak beste, landa- eta natura-ondarearen kontserbazioa, turismo jasagarria, herritarrendako zerbitzuak mantentzea, berrikuntzaren aldeko apustua, eta landa-ingurune batetik telelana egiteko posibilitatea.

Nafarroako Gazteriaren Institutuak parte hartzen du Despopulazioaren aurka Borrokatzeko Departamentuarterko Batzordearen lanetan. Batzorde hori Nafarroako Gobernuak eratu zuen zeharkako gai hau koordinatzeko: despopulazioa eta erronka demografikoa, hain zuzen ere. Horregatik, azterlan honek hurbiltzen gaitu Nafarroako landa-eremuko gazteen errealitatera, haien eskaera eta ekarpenetara, eta benetako lurralde-kohesio baten aldeko konpromiso kolektibora.

Carlos Amatriain Busto
Zuzendari kudeatzailea
Nafarroako Gazteriaren Institutua

Gazteria eta landa ingurunea

Nafarroa 2022

Emaitzen txostena

1. Helburuak eta metodologia	09
2. Elkarrizketatutako gazteen profila	11
3. Landa inguruneko bizitzari dioten atxikimendua	15
3.1. herriarekiko harremana eta landa ingurunearekiko atxikimendua	15
3.2. landa inguruneko bizitzaren alderdi on eta txarren identifikazioa	18
4. Landa inguruneko herritarrei ematen zaizkien zerbitzuei buruzko balorazioa	27
5. Landa inguruneko aisia, astialdia eta harreman sozialak	31
5.1. Landa inguruneko aisialdirako eta astialdirako erakarguneak	31
5.2. Herriko bertako jardueretan dagoen parte-hartzea	34
5.3. Landa inguruneko harreman sozialei buruzko balorazioa	38
6. Landa inguruneko mugikortasuna	41
7. Landa inguruneko okupazioa eta enplegu igurikimenak	45
8. Emantzipatzeko eta etxebizitza bat eskuratzeko aukerak	51
9. Landa ingurunearen despopulazioa; kezka maila eta Administrazioari egiten dizkieten eskaerak	55
9.1. Landa ingurunearen inguruko bizi igurikimenak	55
9.2. Landa ingurunearen despopulazioaren gaineko kezka maila	57
9.3. Landa inguruneko gazte nafarren ahotsa; bizi kalitatea hobetzeko asmoz administrazioari egiten dizkieten eskaerak	60
Amaierako gogoetak	63





Helburuak eta metodologia

Ikerketaren helburuak

Nafarroako Gazteriaren Institutuak landa inguruneko gazte nafarren problematika, esperientzia eta igurikimenak jorratu nahi ditu azterlan monografikoen sortan. Nafarroan, dentsitate urriko herri ugari daude, beharrezkoa da kolektibo horrengana hurbiltzea, bai gazte horiek landa inguruneko bizitzarekin duten asebetetze maila edota atxikimendua ezagutzeko, bai etorkizunera begira egiten duten proiektioaren berri izateko, landa eremuak jendez hustea eragiten egon daitezkeen inguruabarrak identifikatze aldera.

Landa inguruneko gazteei buruzko azterlan bati ekiteko, lehenik eta behin, landa eremutat zer jotzen dugun zehaztu behar dugu. Oraingo honetan, 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrri eta herri nafarrez

ari gara, eta herri horietan erroldatutako gazteei begiratuko diegu.

Ikerketaren helburua honako hau da: gazte nafarrek landa inguruneko egunerokotasunaren hainbat alderdiren gainean duten iritziari eta jarrerari buruzko eta etorkizunera begira dituzten igurikimenei buruzko informazio eta datu eguneratuak edukitzea.

Helburu orokor horri erantzute aldera landu diren helburu zehatzak honako hauek dira:

- ✦ Landa inguruneko gazte nafarren profila.
- ✦ Herritarrek erabilgarri dituzten zerbitzuen identifikazioa eta premien pertzepzioa.

- ✦ Aisialdiaren eta astialdiaren banaketa: herrian bertan edo beste batzuetan egiten duten.
- ✦ Harreman sozialak eta tokiko jardueretan dagoen parte-hartzea.
- ✦ Mugikortasunaren analisia: udalerrietik irteteko premiak, kategorien, erabilitako bitartekoen, joan-etorrien maiztasunaren eta joan-etorri bakoitzaren denbora balioetsiaren arabera.
- ✦ Landa inguruneko aukeren identifikazioa eta lan arloko igurikimena.
- ✦ Landa inguruneko gazteek etxebizitza eskuratzeko duten aukera.
- ✦ Lurraldearen garapenaren eta despopulazioaren inguruko kezka.
- ✦ Administrazio Publikoari egiten dizkieten eskaerak.

Planteamendu metodologikoa

✦ Ikertzeko teknika:

Telefono bidezko 12 minutuko elkarrizketak, CATI (Computer Aided Telephone Interview) sistemaren bidezkoak (tresna osoa), galdera irekiak nahiz itxiak jasotzen dituen galdetegi batetik abiatuta.

✦ Xede-taldea:

16 eta 30 urte bitartean dauzkaten eta landa ingurunea osatzen duten udalerrietan bizi diren gazte nafarrak dira azterkizuna. Landa ingurunetzat jotzen ditugu Nafarroako Foru Komunitatean 10.000 biztanle baino gutxiago dauzkaten udalerriak**.

✦ Lagina eta estatistika errorea:

Landa inguruneko **600 gazte nafarri** egin dizkiegu elkarrizketak, eta kolektibo osoaren

gaineko balioespenak egin ahalko ditugu elkarrizketa horien bidez, **e = ± % 4,0ko errore tartearekin***.

✦ Laginaren banaketa:

Lagina lortzeko, laginketa soilaren irizpide estratifikatu bat erabili dugu, honako aldagai hauekin: Nafarroako eremua, adin taldea eta sexua. Estratu bakoitzari esleipen proportzionatua atxiki diogu, EINek 2020ko urtarrilaren 1eko errolda berrikuspenean udalerrika argitaratutako biztanleria datuen arabera.

✦ Landa lanaren egunak:

Landa lana 2021eko azaroaren 5etik abenduaren 9ra bitartean egin dugu.

* Ponderazio-irizpidea: iturria: INE, Errolda jarraituaren estatistika 2020ko urtarrilaren 1ean.

** Aranguren udalerrria ere sartu dugu; izan ere, 11.306 biztanle baditu ere, landa ingurunearekin pareka daitezkeen ezaugarriak dauzka.

2

Elkarrizketatutako gazteen profila

Ikerketan parte hartu duten landa inguruneko gazteen profilari buruz, honako hau nabarmendu dezakegu:


- † **% 52,1 gizonezkoak** dira eta % **47,9 emakumezkoak**. Batez besteko adina **23 urtekoa** da: % 14,1 18 urtetik beheitikoak dira; % 46,6 18 eta 24 urte artekoak, eta % 39,3 25 eta 30 urte artekoak.
- † Gehienak (**% 58,6**) **1.000 eta 5.000 biztanle arteko udalerrietan erroldatuta daude**. Biztanle kopuru gutxiagoko udalerrietan (1.000 biztanletik beheitikoetan) erroldatuta dauden parte-hartzaileak % 12,9 dira. Azkenik, % 28,5 5.000 eta 10.000 biztanle arteko udalerrietako gazteak dira.
- † **Hamar gaztetik zazpik jatorri autoktonoa dute**; hots, Nafarroan edo erroldaren udalerrian jaiotakoak dira. Bestetik, % 11,0 Espainiako beste toki batzuetatik etorri dira. Azkenik, % 19,4 atzerriko herrialde batean jaiotakoak dira.
- † Bizikidetzaren egoerari dagokionez, gazteen **% 58,0 gurasoekin edo beraien ardura duenarekin bizi dira**; 18 urtetik beheitiko ia gazte guztiak daude egoera horretan. Elkarrizketatutako gazteen % 9,2 bakarrik bizi dira, eta % 28,1 bikotekidearekin. Azken egoera horretan, 25 urtetik goitiko gazteak daude gehienbat. Gazteen % 3,9 pisu partekatuta bizi dira.
- † **25 eta 30 urte bitarteko gazte gehienak lan merkatuan daude**. 18 urtetik beheitikoak batez ere ikasten ari dira. Bestetik, 18 eta 24 urte bitarteko taldeak modu orekatuagoan konbinatzen ditu bi aukerak.
- † **% 44,4k diote beren diru-sarretatik bakarrik bizi direla**; batez ere, 25 urtetik goitikoak dira horiek. % 17,7k beren diru-sa-

rrerak dauzkate, baina beste batzuen laguntza ere jasotzen dute. Bestalde, % 26,9 beste pertsona batzuen diru-sarrerekin soilik bizi dira, eta % 11k diote batez ere beste pertsona batzuen diru-sarrerekin bizi direla baina diru-sarrera propioak ere badituztela.

† **Hamar parte-hartzaitetik bik unibertsitate gradu bat edo graduondoko bat egin dute (% 21,4k).** % 13,8k Lanbide Heziketako goi mailako graduren bat gainditu dute. Bestetik, % 41,0k Bigarren Hezkuntzako bigarren ziklora arte ikasi dute.

Generoa


Oinarria: elkarrizketatuak, guztira.



Adina


Oinarria: elkarrizketatuak, guztira.

Batezbestekoa: 23 urte




Biztanle kopurua

Oinarria: elkarrizketatuak, guztira.




Non jaio zara?*

Oinarria: elkarrizketatuak, guztira.




* 5.000 eta 10.000 biztanle bitarteko udalerriak, Aranguren udalerria barne hartuta (11.306 biztanle).

Jarraian adierazten direnetatik, zein da zure egoera hobekien definitzen duena?* Oinarria: elkarrizketatuak, guztira.





Gaur egun, zein egoeratan zaude?* Oinarria: elkarrizketatuak, guztira.



** Erantzuteko aukerak irakurri ziren. Erantzun bakarra.

Egoera ekonomiko pertsonalari dagokionez, hauetakoz zein dator bat zure egoerarekin?*



Oinarria: elkarrizketatuak, guztira.



- Nire diru-sarrerekin soilik bizi naiz.
- Batez ere nire diru-sarrerekin bizi naiz, baina beste pertsona batzuen laguntzarekin.
- Batez ere beste pertsona batzuen diru-sarrerekin bizi naiz, baina badut diru-sarreraren bat.
- Soilik beste pertsona batzuen diru-sarrerekin bizi naiz.

Zein da orain arte bukatu duzun ikasketen maila altuena?*

Oinarria: elkarrizketatuak, guztira.



- Goi mailako ikasketak
- Erdi mailakoak edo profesionalak
- Oinarritzkoak

* Erantzuteko aukerak iradoki ziren. Erantzun bakarra.

3

Landa inguruneko bizitzari dioten atxikimendua

3.1. Herriarekiko harremana eta landa ingurunearekiko atxikimendua

Azterlanean parte hartu duten gazte gehienek “beren herrikoak” direla sentitzen dute; hala ere, % 63,9k baieztatu dute beti bizi izan direla beren udalerrian, eta % 11,7 herrikoak dira, baina kanpoan ere bizi izan dira. Bestalde, % 24,4k harreman sarriagoa daukate eroldaren udalerrarekin, eta kanpokoak dira, orain herrian bizi arren.

Kanpoan jaio diren edo kanpoan bizi izan diren gazteek harreman luzea daukate gaur egungo udalerrarekin, gehienek 5 urte baino gehiago daramatzatelako eroldaren udalerrian bizitzen. Aurreko bizi esperientziei dagokienez, hiri inguruneetako bizitzarekiko harremana edo ohitura gailentzen da (hiriburua edo beste hiri bat).

Nabarmentzekoa da Nafarroako landa inguruneko gazteak oro har oso pozik daudela herrian edo uda-


lerrian duten bizitzarekin. Gazteen % 45,7k “oso pozik” daudela esan dute, eta % 45,1ek “nahiko pozik”. **Otik 10erako eskalan, landa inguruneko bizitzarekiko batez besteko asebetetze maila 8,3 puntukoa da.**

Halere, badaude landa inguruneko bizitzarekin pozik ez dauden gazteak ere, gutzitzkoaren % 8,9: 6 puntutik beheiti eman dizkiote beren esperientziari.

Nafarroako landa inguruneetako bizitzarekiko asebetetze maila zertxobait handiagoa da mutilen artean, nesken artean baino, baita zaharra-goen artean ere (hots, 25 eta 30 urte artean dauzkaten artean). Baita, halaber, 1.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan bizi diren gazteen artean ere, edota herrikoak sentitzen diren eta bizi esperientzia eremu horretara mugatzen duten gazteen artean.


Baieztapen hauetako zeinekin identifikatzen zara?*

Oinarria: elkarrizketatuak, guztira.




Eta non bizi zinen lehen?*

Oinarria: orain udalerrian bizi diren kanpotarrak eta herrikoak izan arren kanpoan ere bizi izan direnak (n=217).



Noiztik bizi zara oraingo udalerrian?*

Oinarria: orain udalerrian bizi diren kanpotarrak eta herrikoak izan arren kanpoan ere bizi izan direnak (n=217).




* Erantzuteko aukerak iradoki ziren. Erantzun bakarra.

Zenbateraino zaude asebeterik zure herri edo udalerriko bizitzarekin?*

Oinarria: elkarriketatuak, guztira.

Batez besteko asebetetze maila

Guztira (n = 600)



Generoa	Gizonak (n = 313)	%1,0 %1,0 %4,8	%47,7	%46,7	8,4
	Emakumeak (n = 287)	%0,7 %3,0 %8,6	%45,3	%45,4	8,2
Adina	18 urtetik behiti (n = 84)	%0,7 %2,2 %4,6	%45,3	%46,2	8,3
	18 eta 24 urte artean (n = 280)	%0,2 %3,2 %7,0	%44,0	%45,1	8,2
	25 eta 30 urte artean (n = 236)	%0,4 %6,9	%46,3	%46,3	8,4
Biztanleria	1.000 biztanle bitarte (n = 77)	%1,3 %6,3	%42,3	%50,1	8,5
	1.001 eta 5.000 biztanle artean (n = 352)	%0,2 %2,7 %6,6	%47,5	%42,8	8,3
	5.000 biztanletik goiti (n = 171)	%0,8 %0,9 %7,0	%41,5	%49,9	8,3
Herriarekiko harremana	Nire herrikoa naiz, eta beti bizi izan naiz hemen (n = 383)	%0,4 %1,8 %4,9	%45,3	%47,4	8,4
	Nire herrikoa naiz, baina kanpoan ere bizi izan naiz (n = 70)	%1,0 %9,4	%45,0	%44,6	8,2
	Kanpooka naiz, baina orain hemen bizi naiz (n = 147)	%0,4 %3,2 %9,8	%44,6	%42,0	8,1



Asebetetze mailaren batezbestekoa: 0 "ez batere pozik" eta 10 "oso pozik".

3.2. Landa inguruneko bizitzaren alderdi on eta txarren identifikazioa

Beren ustean landa ingurunean bizitzearen alderdi on eta txarrak zein diren adierazi dute gazteek, bat-batean. **Identifikatu dituzten ahulguneei dagokienez:**


- † Landa ingurunean bizitzetik gutxien gustatzen zaiena adierazteko orduan, joan-etorriak egitera behartzen dituen distantzia aipatu dute gehien; hots, kudeaketak eta erosketak egiteko edo beste zerbitzu batzuk jasotzeko egin behar izaten dituzten joan-etorrieko gehiegizko mendekotasuna. Halaxe adierazi dute kontsultatuen % 17,0k. Mugaketa horrekin bat, garraio publikoarekiko mendekotasuna ere aipatu dute gazteen % 15,0k, baita garraio publikoaren alternatiba egoki baten falta ere.
- † Bestalde, herrietan daukaten zerbitzu hornidura aipatu dute alderdi txarren artean. Hala, gazteendako aisialdi aukerak (% 14,5), merkataritza zuzkidura handiagoa (% 13,1) eta, oro har, bestelako zerbitzuak (% 11,6) nahi dituzte.
- † Era berean, gazteen % 5,6k lanerako aukera gutxiago identifikatzen dituzte beren herrian, eta herritar guztiek elkar ezagutzen duten inguruneetan sortzen den txutxu-mutxua edo gehiegizko kontrol soziala aipatu dute % 5,5ek.

Biztanle gutxiago dauzkaten inguruneetan (1.000 biztanletik beheikoetan) bizi diren gazteek are gehiago aipatu dituzte gehiegizko joan-etorriak edo garraio publikoaren falta nahiz harekiko mendekotasuna.

Halaber, zerbitzuen urritasuna eta sozializatzeko adin bereko biztanleen kopuru txikia identifikatu dituzte beren herriko bizitzaren alderdi txarren artean. Bestetik, biztanle gehiago dauzkaten inguruneetako gazteek aisialdirako aukera txikian eta lanerako aukera gabezia jarri dute begirada.

Zure ustez, zein dira herri batean bizitzearen alderdi txarrenak?*

Oinarria: elkarrizketatuak, guztira.



* Erantzun irekia.

Zure ustez, zein dira herri batean bizitzearen alderdi txarrenak?*

Oinarria: elkarriketatuak, guztira.

	GUZTIRA (n=600)	ADIN TALDEA	
		18 urtetik beheiti (n =84)	18 eta 24 urte arte (n = 280)
Kudeaketak, erosketak... egiteko joan-etorriak egin behar dira / Gehiegizko joan-etorriak / Distantzia	% 17,0	% 24,0	% 19,0
Garraio publikoaren gabezia / Harekiko mende-kotasuna	% 15,0	% 14,4	% 17,8
Aisialdirako aukerak falta dira	% 14,5	% 15,4	% 12,2
Dendak falta dira	% 13,1	% 16,8	% 12,4
Zerbitzuak falta dira	% 11,6	% 5,6	% 10,1
Lanerako aukera gutxiago	% 5,6	% 1,8	% 7,0
Txutxu-mutxua, guztiek ezagutzen zaituzte... (kontrol soziala)	% 5,5	% 4,2	% 6,1
Osasun baliabideak falta dira	% 3,4	% 2,4	% 3,7
Gazte gutxi / Sozializatzeko zailtasuna	% 2,8	% 3,6	% 3,6
Txikia da: irekitasun, baliabide, bitarteko, aukera... gutxiago	% 2,4	% 3,2	% 3,3
Etxebizitza eskuratzeko zailtasunak	% 1,1	-	% 1,0
Jarraitutasun falta ikasketetan	% 0,8	% 1,5	% 1,4
Estaldura / Interneterako konexioa	% 0,5	% 0,5	-
Bestelakoak	% 2,7	% 4,3	% 2,5
Ez daki / Ez zaio bururatzen	% 7,6	% 6,3	% 7,0
Ezer ez / Bat ere ez	% 15,1	% 15,6	% 12,6

* Erantzun irekia.

25 eta 30 urte artean (n = 236)	BIZTANLE KOPURUA		
	1,000 biztanle bitarte (n = 77)	1,001 eta 5,000 biztanle artean (n = 352)	5,000 biztanle baino gehiago (n = 171)
% 12,3	% 31,4	% 17,1	% 10,5
% 12,0	% 21,4	% 13,5	% 15,2
% 16,8	% 6,2	% 15,3	% 16,4
% 12,6	% 8,4	% 13,5	% 14,3
% 15,5	% 23,7	% 10,2	% 8,9
% 5,3	% 1,1	% 5,7	% 7,5
% 5,3	% 2,8	% 6,7	% 4,4
% 3,3	% 2,3	% 3,1	% 4,5
% 1,4	% 4,8	% 2,3	% 2,8
% 1,1	% 1,4	% 2,8	% 2,0
% 1,7	% 2,5	% 1,0	% 0,7
-	-	% 0,8	% 1,3
% 1,0	% 3,0	% 0,1	-
% 2,3	% 2,4	% 2,4	% 3,3
% 8,7	-	% 8,2	% 9,7
% 17,9	% 9,2	% 16,1	% 15,7

Batezbestekoaren gainetiko balioak.


Landa inguruneko bizitzaren alderdi onei dagokienez:

- † Gazte nafarren % 57,6k landa eremuetako bizi erritmoa **lasaiagoa** dela eta giro lasaiagoaz gozaten dela nabarmendu dute beren esperientziaren alderdi on nagusi gisa.
- † Bigarren tokian baina nola-baiteko distantziara, gazteen % 28,1ek **komunitateko kide** izatearen ideia edo sentimendua azpimarratu dute; elkar ezagutzen dutenez, tratua hurbilagoa dela eta auzokideen eta herrian bizi diren gainontzekoen artean **lotura estuagoa** dagoela esan dute.
- † Hortik aurrera, funtsean hiriko bizimoduarekin talka egiten duten alderdiak aipatu dituzte landa inguruneko gazteek. Alderdi horien artean, honako hauek daude: **natura, ingurumen eta aire zabaletik hurbilago** bizi dira (% 9,3); beren bitartekoetatik **hurbil** bizi dira, eta, beraz, udalerriarren barruan ez dute joan-etorri handirik egin behar izaten, hirietan ez bezala (% 8,0), eta **kutsadura** akustikoa nahiz ingurumenekoa **txikiagoa** da, zentzu zabalean (% 5,6).
- † Bestalde, landa inguruneko bizitza **seguruagoa** dela aipatu dute (% 4,5), batez ere emakumeek; gizonek, berriz, askatasun handiagoa dutela adierazi dute, **mu-gimendu askatasuntzat** hartuta (% 4,1).

Gazte nafarrek herriko bizimoduaren lasaitasuna nabarmendu dute, eta emakumeek komunitateko kide izatearen sentimendua eta segurtasun pertzepzio handiagoa aipatu dituzte gehiago.

Eta zein dira herri batean bizitzearen alderdi onenak?

Oinarria: elkarrizketatuak, guztira.



* Erantzun irekia.

Zure ustez, zein dira herri batean bizitzearen alderdi txarrenak?*

Oinarria: elkarrizketatuak, guztira.

	GUZTIRA (n=600)	ADIN TALDEA	
		18 urtetik beheiti (n =84)	18 eta 24 urte arte (n = 280)
Lasaitasuna / Giro lasaia	% 57,6	% 43,2	% 56,3
Jendearen hurbiltasuna, komunitatea sortzea, guztiekin elkar ezagutzeko	% 28,1	% 44,8	% 24,1
Naturarekiko / ingurumenarekiko / aire zaba- larekiko harremana	% 9,3	% 8,0	% 8,7
Guztia hurbil dago, eskura	% 8,0	% 1,1	% 9,0
Kutsadura, trafikoa eta zarata gutxiago	% 5,6	% 6,3	% 6,3
Segurtasun handiagoa	% 4,5	% 2,7	% 6,2
Askatasun handiagoa	% 4,1	% 7,0	% 3,2
Bizi kalitatea	% 3,3	-	% 2,8
Ez dago jende pilaketarik / Jende gutxi	% 2,0	-	% 3,4
Guztia / Herria	% 1,9	% 1,2	% 1,5
Bizitza merkeagoa da	% 1,8	% 2,5	% 1,8
Familiarengandik hurbil zaude	% 1,3	% 2,0	% 1,7
Komunikazio onak dauzka / Hirigunetik hurbil dago	% 1,1	-	% 1,2
Lagunak	% 0,9	% 1,9	% 0,6
Bestelakoak	% 3,9	% 4,8	% 2,4
Ez daki / Ez zaio bururatzen	% 1,9	% 1,0	% 3,0
Ezer ez / Bat ere ez	% 0,4	% 0,7	% 0,3

* Erantzun irekia.

25 eta 30 urte arteen (n = 236)	BIZTANLE KOPURUA		
	1,000 biztanle bitarte (n = 77)	1,001 eta 5,000 biztanle artean (n = 352)	5,000 biztanle baino gehiago (n = 171)
% 64,2	% 78,1	% 54,6	% 54,3
% 26,9	% 23,5	% 29,0	% 28,3
% 10,6	% 21,0	% 8,1	% 6,6
% 9,2	-	% 8,0	% 11,6
% 4,5	-	% 6,0	% 7,2
% 3,2	% 3,1	% 4,3	% 5,5
% 4,3	% 10,8	% 3,4	% 2,5
% 5,1	% 7,0	% 1,9	% 4,7
% 1,1	% 1,9	% 1,3	% 3,6
% 2,7	-	% 3,0	% 0,7
% 1,6	% 3,1	% 1,3	% 2,2
% 0,7	-	% 1,5	% 1,6
% 1,3	-	% 1,8	-
% 0,7	-	% 1,2	% 0,5
% 5,3	-	-	-
% 1,0	% 1,1	% 1,9	% 2,2
% 0,4	-	-	% 1,5

Batezbestekoaren gaisetiko balioak.





4

Landa inguruneko herritarrei ematen zaizkien zerbitzuei buruzko balorazioa

Lehen ikusi dugunez, landa inguruneko gazte nafarrek adierazi dute zerbitzuen zuzkidura txikiagoa izatea dela landa ingurunean bizitzearen alderdi txarretako bat. Zentzu horretan, **beren herri edo udalerrian herritarrei ematen zaizkien zerbitzuen inguruan duten asebetetze mailaz galdetu zaie parte-hartzai-lei.**

Normala den bezala, 1.000 biztanletik beheitiko udalerrietan bizi diren gazteek nabarmendu dute herritarrendako zerbitzuak falta direla. Zerbitzu horien artean, honako hauek gailendu dira: % 57,2k diote ez daukatela Bigarren Hezkuntza egiteko zentrorik; % 38,5ek esan dute herrian ez dutela gizarte zerbitzurik, eta antzeko ehuneko batek esan du ez daukatela gazte lokalik (% 38,5). Bestetik, % 36,6k adierazi dute herrian ez daukatela Lehen Hezkuntzarik.

Alabaina, udalerrian herritarrendako zerbitzu zuzkidura nahikoa duten aipatu ala ez gorabehera, baliabide horiekin duten asebetetze maila nabar-

men aldatzen da zerbitzuon arabera edo udalerrri txikietan edo ertaintetan bizi.

Oro har, **landa inguruneko gazteek adierazi duten asebetetze maila ona da, 1etik 10erako eskalan 7,5 puntutik goitikoa**, honako baliabide haue-tarako:

- † Lehen Hezkuntza (8,0 puntu).
- † Telefono mugikorraren estaldura (7,9 puntu).
- † Interneten estaldura (7,7 puntu).
- † Sukaldaritza eta ostalaritza (7,6 puntu).

Aitzitik, gabeziak hauteman dira landa inguruneko baliabide batzuetan, asebetetze mailan ez baitute 7 puntuko langa gainditzen (1-10 puntuko eskalan); horien artean, honako hauek daude:

- † Garraio publikoa (6,1 puntu).
- † Gazteendako zentroak edo lokalak (6,3 puntu).
- † Gizarte zerbitzuak (6,8 puntu).
- † Kultura (6,9 puntu).


Adierazi dugun moduan, **1.000 biztanletik beheitiko udalerrietan bizi diren gazteek adierazitako asebetetze mailak ez datoz bat biztanle gehiagoko landa inguruneetan bizi**

diren gazteek adierazitakoekin.

Herrri txikienetan, gazteak kritikoak dira baliabide batzuekin; are, suspentitu ere egiten dituzte. **Hala, garraio**

Udalerrian herritarrendako ez dauden zerbitzuen eta baliabideen tasa, biztanleriaren arabera.

Oinarria: elkarrizketatuak, guztira.




4 Landa inguruneko herritarrei ematen zaizkien zerbitzuei buruzko balorazioa

publikoaren hornidurak ez du bost puntuko langa gainditzen (4,7 puntu) asebetetze eskalan (-10 puntu). Bestetik, gazteendako zentroek edo

lokalek (5,6 puntu), gizarte zerbitzuek (5,6 puntu), kulturak (5,9 puntu) eta kirol azpiegiturak (6,0 puntu) ere hobetzeko tarte handia dute.

Udalerriari herritarrendako dauden zerbitzu eta baliabideekiko asebetetze maila*


Oinarria: elkarrizketatuak, guztira.



* Asebetetze mailaren batezbestekoa: 0 "ez batere pozik" eta 10 "oso pozik".

Udalerrian herritarrendako dauden zerbitzu eta baliabideekiko asebetetze maila

Oinarria: elkarrizketatuak, guztira.



5

Landa inguruneko aisia, astialdia eta harreman sozialak

5.1 Landa inguruneko aisialdirako eta astialdirako erakarguneak

Landa ingurunean bizi diren gazte nafarrek joan-etorriak egin behar izaten dituzte aisialdiko eta astialdiko jarduerak egiteko. Zentzu horretan, % 44,0k ohikotasunez irten behar izaten dute udalerritik aisialdiko jarduerak egiteko, eta % 26,1ek noizean behin egiten dute.

Gazteenak (18 urtetik beheitikoak) irtetzen dira udalerritik gutxien aisialdiaz gozatzeko, halaxe adierazi baitute gazteenen % 43,3k; halere, elkarrizketatuaren adinak goiti egin ahala, aisialdiaz eta astialdiaz gozatzeko mugikortasun tasak goiti egiten du. **Udallerriaren neurriak ere zehrikusia dauka aisialdiko jarduerak egiteko mugikortasun tasarekin;** horrela, 1.000 biztanletik beheitiko udalerrietako gazte nafar gehienek joan-etorriak egiten dituzte (% 54,8), eta, 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerriez ari bagara, ehuneko horrek hoguei puntu egiten ditu beheiti (% 34,4), entretenitzeko baliabide gehiago dauzkatelako.

Iruña da landa inguruneko gazteen-dako erakargune nagusia aisialdirako eta astialdirako; izan ere, % 61,1ek adierazi dute beren herritik irten eta hiriburura joaten direla. Ondoko udalerrietarako joan-etorriak ere ugariak dira, eta, eskualde batzuetan (hala nola Estellerrian, Erriberan edo Tuteran), eskualdeko herri nagusiek lekualdatze horien zati bat biltzen dute.



Landa inguruneko gazte nafarrek aisialdiaz beren herrian bertan gozaten duten batez besteko denbora ere aldatu egiten da, asteguna edo asteburua izan. **Landa inguruneko gazte nafarrek aisialdirako duten denboraren % 70 inguru herrian bertan igarotzen dute astegunetan, baina, asteburuaz ari bagara,** ehuneko horrek 18 puntu inguru egiten ditu beheiti, herriaren eta beste toki batzuen artean banatzen baitute denbora, modu orekatuagoan.

Zure udalerrri edo herritik irteten zara aisialdiko jarduerak egiteko?*

Oinarria: elkarrizketatuak, guztira.




Nafarroako landa inguruneetako **≈ 18.393 gazte** herritik irten ohi dira aisialdiko jarduerak egiteko




Erantzuteko aukerak iradoki ziren. Erantzun bakarra.

Herritik irteten zarenean, batez ere nora joaten zara?*

Oinarria: lekualdatzen diren elkarrizketatuak, guztira (n=420).



Aisialdia dela-eta hiriburura egiten dituzten joan-etorriak




	GUZTIRA (n=420)	ZONA						
		Ipar-mendebaldea (n=71)	Pirinioak (n=23)	Iruñeria (n=104)	Estelleria (n=37)	Nafarroako Eki-aldera (n=28)	Erribera (n=83)	Tutera (n=74)
Inguruko herrietara	% 57,4	% 63,5	% 29,1	% 33,3	% 54,5	% 34,1	% 81,7	% 77,6
Eskualdeko herri nagusira	% 17,4	% 14,9	% 15,3	--	% 36,1	% 17,5	% 26,5	% 25,3
Hiriburura, Iruñera	% 61,1	% 62,3	% 75,4	% 86,4	% 34,8	% 82,4	% 53,0	% 33,5
Logroñora	% 2,1	--	--	--	% 14,7	--	% 4,0	--
Zaragoza	% 1,4	--	--	--	--	--	% 2,1	% 5,7
Tutera	% ,2	--	--	--	--	--	% 0,9	--
Bestelakoak	% 2,7	% 8,4	--	% 2,2	--	--	% 0,7	% 3,5

* Erantzuteko aukerak iradoki ziren. Erantzun bat baino gehiago eman zitezkeen.

OHARRA: eskualdeen araberako lagin oinarriak murriztak direnez, irakurketa kualitatiboa egin behar izan dugu.

Aisialdirako denboraren % 100etik, zenbat igarotzen duzu zure udalerrrian eta zenbat Oinarria: elkarrizketatuak, guztira.




5.2 Herriko bertako jardueretan dagoen parte-hartzea

Interesgarria da landa inguruneke gazte nafarrek tokiko jardueretan dituzten inplikazioaren eta parte-hartzearen maila aztertzea, herriarekin duten loturaren eta integrazioaren adierazleztat har baitezakegu. **Gazteen % 53,2k esan dute herrian bertan antolatzen diren jardueretan parte hartzen dutela**, baina inplikatzeko ez diren gazteen tasa % 46,8koa da. Datuak estrapolatuta, **Nafarroako landa inguruneke 22.239 gazte inguruk diote tokiko jardueretan parte hartzen dutela.**

Udalerriko bizitza publikoan inplikatzeko, **antolatutako jardueretara joaten dira gazte gehienak, lautik hiru (% 75,3)**. Jarduera horien egite tasa askoz ere txikiagoa da, jardueretara joaten diren gazteen % 31,8k esan duten moduan. Bestetik, gazteen % 29,8 asko inplikatzeko dira antolaketarekin, eta % 10,5ek, gainera, zer jarduera egin proposatzen dute. **Batez beste, gazteek 7,2 puntu ematen dizkiote beren inplikazioari, parte-hartzearen maila txikienetik handienara doan eskalan (0-10 puntu).**

beste udalerrri batzuetan?

Biztanleria



Tokiko jardueretan parte ez hartzeko aipatu duten oztopo **nagusia denbora falta da**. Batez ere, 25 urte-tik goitikoek aipatu dute arrazoi hori, betebehar gehiago izan ditzaketelako (bereziki, lan arlokoak).

Bestalde, gazteen % **29,6k esan dute beren herrian ez dagoela edo ez dutela aurkitzen gustuko jarduerarik**, eta % 9,7 harago joan dira, zuzenean adierazi baitute beren herrian ez dela jarduerarik antolatzen.

Herri txikietan (1.000 biztanletik beheitikoetan) **bizi diren gazteek**

askoz ere partaidetza handiagoa dute herriko bizitzan. Hor, jardueretan inplikaturik dauden gazteen tasa % 66,6raino iristen da.


Era berean, **herriarekin duten loturak parte-hartze hori sendotzen du**. Herrikoak direnek edo herrikoak sentitzen direnek, noizbait beste herriren batean bizi izan ala ez gorabehera, biztanle gazte berriek baino askoz ere parte-hartze handiagoa dute tokiko jardueretan.

Zure herrian antolatzen diren jardueretan parte hartzen duzu?


Oinarria: elkarrizketatuak, guztira.



Landa inguruneetako ~
≈ **22.239 gaztek**
herrian bertan
antolatzen diren
jardueretan parte
hartzen dute




Tokiko jardueretan duten parte-hartzearen tasa, hainbat aldagairen arabera



5 Landa inguruneako aisia, astialdia eta harreman sozialak


Nola hartzen duzu parte jarduerotan?

Oinarria: tokiko jardueretan parte hartzen duten elkarrizketatuak (n=319).



Zergatik ez duzu jarduerotan parte hartzen?

Oinarria: tokiko jardueretan parte hartzen ez duten elkarrizketatuak (n=281).



* Erantzuteko aukerak iradoki ziren. Erantzun bat baino gehiago eman zitezkeen.

5.3 Landa inguruneko harreman sozialei buruzko balorazioa

Nafarroako landa inguruneko gazteek harreman sozialen inguruan dauzkaten iritziek bat egiten dute alderdi batzuetan. Adibidez, herrietan **kontrol sozial handia** ezartzen dela uste dute, gainerako herritarrek gazteen mugimendu eta jarduera guztien berri izaten dutela. Lehen esan bezala, horixe da landa inguruneko bizimodutik okerren baloratutako elementuetako bat. Puntu horretan, gazteen % 86,0k “oso” edo “nahiko ados” daudela esan dute, kontrako iritzirik eman gabe ia.

Era berean, gehienek bat egiten dute esatean **herrietan sortzen diren kuadrillek adin ezberdineko pertsonak biltzen** dituztela. Gazteen % 86,0 “oso” edo “nahiko ados” daude horretan. Bestetik, adostasun maila altua dago honako baieztapen honen inguruan (% 80,9): sortzen diren loturak eta harremanak estuagoak dira, eta, beraz, harremanak pozgarriagoak dira.

Alabaina, adostasun maila txikiagoa dago **herriko bizitza aste barruan oso aspergarria ote den** baloratzeko orduan: % 45,4k maila handiagoan edo txikiagoan babestu dute alderdi hori. Gazteen % 26,1, ordea, ez dago ideia horrekin konforme.

Nolabait, kontsultatutako hamar gaztetik lauk uste dute hiriko biztan-

leek herrien inguruko aurreiritziak dauzkatela eta estereotipo ezkorrak esleitzen dizkietela. Gazteen % 41,9 ados daude **hiritarrek landa inguruneko biztanleak “baserritartzat” edo “abarkaduntzat” jotzen** dituztelako ideiarekin, maila handiagoan edo txikiagoan.

Landa inguruneko harreman sozialen inguruan baloratu dituzten beste alderdi batzuetan, gazteen adostasun mailak eta iritziak bananduago daude. Hala, kontsultatutako bi pertsonatik batek ez du inola ere bat egiten **beste gazte batzuekin harremanak edukitzeko beste hiri batzuetara joan behar** delako ideiarekin (% 51,4); alabaina, gazteen % 29,8 konforme daude.


Halaber, bi gaztetik bat ez dago ados **herrian bikotekidea aurkitzea zailagoa** delako baieztapenarekin (% 50,0); % 25,9k, baina, mugatuago ikusten ditu inguruneak berak eskaintzen dizkion aukerak.

Azkenik, iritzia bananduago daude **landa ingurunean sexu aniztasuna gutxiago errespetatzen** ote den baloratzeko orduan. Bada, gazteen % 41,3 baieztapen horren kontra dago, baina % 37,8 “zertxobait ados” daude, eta % 20,9 “ados”.

5 Landa inguruneko aisia, astialdia eta harreman sozialak


Adierazi landa inguruneko harreman sozialen inguruko baieztapen hauekin ados zauden ala ez*


Oinarria: elkarrizketatuak, guztira.



*Oinarria: elkarrizketatuak, guztira.

** ** Adostasun tasa: Gutziz + Nahiko ados (%).





6

Landa inguruneko mugikortasuna

Landa inguruneko bizitzak dakarren mugikortasuna jorratzeko, askotariko zereginetarako egin ohi dituzten joan-etorriez, erabiltzen duten garraioaz, **bidaien maiztasunaz eta ibilbidean erabilitako denboraz galdetu behar zaie gazte nafarrei.**


Gazte nafar gehienek esan dute besteak beste erosketak egiteko edo arropa erosteko (% 68,1) eta kudeaketak egiteko (% 51,4) ateratzen direla herritik. Era berean, hamarretik hiruk edo lauk adierazi dute ikasketeko edo lan egiteko irteten direla, egokitzen denaren arabera, bai eta parranda egiteko ere. Planteatutako gainerako zereginiek mugikortasun tasa txikiagoa dute (adibidez, harreman sozialak egiteko, kirola egiteko edo medikuarengana joateko), gehien-gehienek ahal dela herrian bertan egiten baitituzte.

Halere, adinak eta udalerrien biztanle kopuruak nabarmen eragiten dute joan-etorriak egiteko beharrean, honako grafiko hauek erakusten duten bezala. 18 urtetik beheitikoen artean, hamarretik zortzi udalerritik irteten dira ikasketekin jarraitzeko, eta oso faktore erabakigarria da hori. Bestetik, 1.000 biztanletik beheitiko herrietan, udalerritik erosketak egitera irteten diren gazteen tasak (% 90,1) 22,6 portzentaje-puntutan gainditzen du 1.000 eta 5.000 biztanle arteko udalerrietako gazteen tasa (% 67,5), eta 30,6 puntutan 5.000 biztanletik goitikoa (% 59,5).


Biztanleriaren araberrako alde horiek ikus daitezke, baita ere, kudeaketa edo izapide administratiboak egiteko, medikuarengana joateko eta kultur jardueretara joateko orduan.

Zure udalerritik irteten zara honako zeregin hauek egiteko?


Oinarria: elkarrizketatuak, guztira.




JARDUERAK EGITEKO UDALERRITIK IRTETEN DIREN GAZTEEN TASA, GENEROAREN ARABERA



LANDA INGURUNEKO GAZTE NAFARREK EGITEN DITUZTEN JOAN-ETORRI MOTAK



6 Landa inguruneko mugikortasuna



- † **Udalerritik askotariko zereginak egitera irteteko, gehienbat norberaren ibilgailua erabiltzen dute,** beraiek edo beste batzuek (hala nola, gurasoek edo beren ardura dutenek) gidatu gorabehera. **Hor-taz, agerikoa da landa ingurune-ko gazteek autoarekiko mendeko-tasun handia dutela.**
- † Ildo horretan, **garraio publi-koaren erabilera oso garrantzi-tsua da udalerritik ikasketa arra-zoiengatik irteten direnendako.** Kasu horietan, hamarretik lau garraio publikoan mugitzen dira. Beste jarduera batzuei buruz ari garelarik, ibilgailu pribatuaren erabilerak beheiti egiten du, bai-na “parranda egiteko” (% 25,0) edo “harreman sozialak edukitzeko” (% 21,5), alternatiba edo bitarteko gisa erabiltzen dute.
- † **Joan-etorrien maiztasunari da-gokioenez,** gehienek egunero egin behar izaten dituzte joan-etorriak ikastera edo lanera joateko; beste gazte batzuek, baina, astean behin egiten dituzte joan-etorri horiek. Joan-etorrian batez beste erabil-tzen duten denbora 51 minutukoa da ikastera joateko bada, eta zer-txobait gutxiago (38 minutu) lane-ra joateko bada.
- † **Astean behin egiten diren joan-etorrietarako arrazoien ar-tean, honako hauek aurkitzen ahal ditugu:**

 - harreman sozialak edukitzea (% 71,0),
 - parranda egitea (% 58,0) eta,
 - are, kirola egitea (% 49,8).

Kasu horietan, ibilbidean erabi-litako batez besteko denborek ez dituzte 41 minutuak gainditzen pa-r-randa egiteko bada, eta laburra-goak dira harremanak edukitzeko edo kirola egiteko bada (36 eta 32 minutu, hurrenez hurren).
- † **Udalerritik kanpo egiten diren baina gehienbat aldizka egiten diren ekintzen artean,** erosketak egitea, medikuarengana joatea, kudeaketa administratiboak egi-tea eta kultur jardueretara joatea daude.
- † **Ibilbide horietan, batez beste era-biltzen duten denbora handiagoa da izapide administratiboak egi-teaz ari bagara.** Batez beste, 41 mi-nutu joan-etorri bakoitzeko.

7

Landa inguruneko okupazioa eta enplegu igurikimenak

Atal honetan, landa inguruneko gazteek lan merkatuari eta lanerako aukerei buruz dauzkaten iritziak aztertuko ditugu. Nabarmentzekoa da dagoeneko lan merkatuan sartuta dauden gazte gehienek, izan karrera profesionalean bakarrik arituta, izan ikasketak lanarekin edo lan txikiekin konbinatuta, **lantokia ez dutela beren udalerrian, halaxe adierazi baitute % 63,3k.**

Halere, hiru gaztetik batek baino zer-txobait gehiagok udalerrian bertan egiten dute lan (% 36,7), baina, zalan-tzarik gabe, aldagai batzuen araberrakoa da hori. Batetik, herrian bertan lan egiten duten 18 urtetik beheitiko gazteen tasak, lan txikiren bat ikasketekin uztartzen dutela ulertuta, nabarmen egiten du goiti. Bestetik, zenbat eta biztanle gehiago edu-

ki, herrian bertan lan egiten duten gazteen tasa orduan eta handiagoa da. Azkenik, ikasketa mailak alde-rantzizko korrelazioa erakusten du: amaitutako ikasketen maila zenbat eta altuagoa izan, orduan eta aukera gutxiago daukate ingurunean bertan lan egiteko.


Bestalde, oraindik lan merkatura sartu ez direnek ez dute uste lana beren ingurunean aurkitzeko aukera handirik izanen dutenik. Gazte horien **% 41,5ek** uste dute ez dagoela horretarako "inolako aukerarik", eta % 18,1ek "aukera txikia" ikusten dute. Otik 10erako eskalan, oraindik orain lan munduari aurre egin ez dioten landa inguruneko gazteek suspentitu egin dute lana beren udalerrian aurkitu ahal izateko aukera, batez beste 3,5 puntu eman baitizkiote.

Zure udalerrian egiten duzu lan?


Oinarria: lanean ari diren elkarrizketatuak (n=399).



Lanen bat egiten duten landa inguruneetako **≈ 17.596 gazteek** herritik bertatik kanpo egiten dute




HERRIAN BERTAN LAN EGITEN DUTEN GAZTEEN TASA, ALDAGAIEN ARABERA



Zure ustez, zenbateko aukera daukazu herrian bertan zure intereseko lan bat aurkitzeko?

Oinarria: lanean ari ez diren elkarrizketatuak (n=191).



Pandemiaren ondorioz, telelanak goiti egin du, eta horrek aukera bat ekarri die despopulazioaren aurka borrokan ari diren landa inguru-nee; behinik behin, arlo teorikoan. Zentzu horretan, landako bizimoduari eutsita urrutiko lanean aritzeko aukeraren inguruan duten interes mailaren berri eman dute lan merkatan dauden gazte nafarrek.

Hala, gazteen % 14,8k interes handia erakutsi dute aurrez aurreko ereduaren alternatiba horri dagokionez (a priori, interesa handiagoa da beste toki batean egonez gero), eta


% 33,8k interes nahikoa agertu dute. Bestalde, % 28,2k nolabaiteko interesa adierazi dute, eta % 23,2k interes txikia edo inolako interesik ez.

Hala, **baieztza dezakegun moduan, gazte nafarrek nolabaiteko interesa erakutsi dute** beren udalerritik bertatik urrutira lan egiteko ideiarenean, 5,9 puntu eman baitizkiote batez beste, otik 10erako eskalan.

Goi mailako ikasketak amaitu dituzten gazteek agertu dute telelanean aritzeko eta landa ingurunearekin lotuta jarraitzeko interes mailarik altuena.

Zenbateko interesa duzu urrutitik lan egiteari edo telelanean aritzeari dagokionez, zure herritik bertatik egin ahal izan dezazun?

Oinarria: lanean ari ez diren elkarrizketatuak (n=191).




Zure ustez, zenbateko aukera daukazu herrian bertan zure intereseko lan bat aurkitzeko?*

Oinarria: lanean ari ez diren elkarriketatuak (n=191).



GUZTIRA 5,9
(n=191)



* Balorazio eskalaren batezbestekoa; gutxienekoa 0, «Inolako aukerarik ez», eta gehienekoa 10, «Aukera handia».

Landa ingurunean lan egiteko dauden aukeren inguruko askotariko baieztapenekin ados dauden ala ez adierazi dute gazteek, eta, iritzia horiei begiratuta, honako argazki hau ateratu da:


- ➔ Kontsultatutako hamar lagunetik zazpi (% 71,1) ados daude, neurri handi edo txikiagoan, **landa ingurunean lan egiteko aukerak familia eta lana bateragarri egitea gehiago ahalbidetzen** dute-lako baieztapenarekin.
- ➔ Halaber, hamarretik sei (% 60,3) konforme daude **pandemiaren ondoriozko telelanak landa inguruneetatik nahi den lan hori egiteko aukera ekarri** duelako ideiarekin.
- ➔ Bestetik, hamarretik lau (% 41,0) oso ados edo nahiko ados daude

landa ingurunean prestakuntza maila handiko lana lortzea posible ez delako baieztapenarekin. Antzeko ehunekoak ados dago **herri txikietan lana aurkitzeko aukerarik ez** dagoelako ideiarekin (% 41,8).

- ➔ Azkenik, gazteen adostasun mailak behera egiten du **landa inguruneetan ekiteko edo norberaren negozioa abiarazteko aukera handiagoa** dagoelako ideia baloratzeko orduan. Gazteen % 20,0 agertu dira ados ideia horrekin, baina % 37,3k ez du aparteko abantailarik ikusten.


Zenbateraino zaude ados landa ingurunean lan egiteko dauden aukeren inguruko baieztapen hauekin?*

Oinarria: elkarriketatuak, gutzira.



* Balorazio eskalaren batezbestekoa: 0 "Ez nago batere ados", 10 "Gutziz ados nago".
 ** Adostasun tasa: Gutziz+ Nahiko ados (%).

■ Ez nago batere ados
 ■ Zertxobait ados nago
 ■ Gutziz ados nago
 ■ Lana bakarrik egiten dut
 ■ Ikasi eta lan egiten dut
 ■ Ikasi bakarrik egiten dut
■ Ez nago oso ados
 ■ Nahiko ados nago
 ■ Langabezia nago, edo lan bila nabil
 ■ Bestelakoak



8

Emantzipatzeko eta etxebizitza bat eskuratzeko aukerak

Hamar gaztetik sei oraindik ez dira emantzipatu (% 58,0); egoera horretan daude 18 urtetik beheitiko ia guztiak eta 18 eta 24 urte arteko gazte gehien-gehienak.

25 urtetik goiti bikotean, bakarrik edo pisu partekatuan bizi diren gazteen tasa gero eta handiagoa da, hamarretik zazpi baitaude egoera horretan.



Emantzipatzeko arrazoi nagusia independizatzeko nahia da (% 54,1), eta neurri txikiagoan bikotean biziitzea edo ezkontzea (% 39,1). Independizatu ahal izateko orduan, lana edo ikasketak direla-eta lekualdatu behar izateak eragina dauka gazte batzuegan.

Oraindik urratsa eman ez dutenek baliabide ekonomikorik ez edukitzea (% 44,9) jo dute arrazoi nagusitzat, eta, ondoren, ikasten edo prestatzen jarraitzea (% 39,0).

Jarraian adierazten diren estatistik, zein da zure egoera hobekien definitzen duena?

Oinarria: elkarrizketatuak, guztira.


- Gurasoekin bizi naiz (edo nire arduraren duenarekin)
- Bakarrik bizi naiz
- Bikotean bizi naiz
- Pisu partekatuan bizi naiz
- Bestelakoak



* Erantzuteko aukerak iradoki ziren. Erantzun bakarra.


Zergatik utzi zenion gurasoekin (edo haietako batekin) edo zure ardura zuenarekin bizitzeari?

Oinarria: gurasoekin edo beren ardura duenarekin bizitzeari utzi dioten elkarrizketatuak (n=252).



Zergatik jarraitzen duzu gurasoekin (edo haietako batekin) edo zure ardura duenarekin bizitzen?

Oinarria: gurasoekin edo beren ardura duenarekin bizitzeari utzi ez dioten elkarrizketatuak (n=348).




* Ez zen erantzuteko aukerarik iradoki. Erantzun bat baino gehiago eman zitezkeen.

Landa inguruneko gazteek etxebizitza zuzkiduraren inguruan duen iritzia aztertuta, honako ondorio hauek atera ditzakegu:

- ✦ Landa inguruneko gazteen % 91,6 ados daude baieztapen honekin, eta ez dute apenas kontrako iritzirik eman: Administrazioak laguntzak eman beharko lizkieke gazteei herri txikietan etxebizitza erosteko edo alokatzeko, despopulazioa saihesteari begira.
- ✦ Gazteen % 65,7k ideia hau babesten dute: herrietan, etxebizitzaren prezioak arrazoizkoagoak dira, hiri handietan baino.
- ✦ Antzeko ehuneko batek (% 61,4) adierazi du ados dagoela baieztapen honekin, neurri handiagoan edo txikiagoan: herrietan, etxebizitza asko hutsik daude, eta Administrazioak esku hartu beharko luke, hau da, neurriak hartu beharko lituzke, etxebizitza horien alokairuari edo salmentari bide emateko.
- ✦ Azkenik, gehienek uste dute (% 53,3) landa ingurunean ez dagoela etxebizitza nahikorik salgai edo alokatzeko prest.

Herriko etxebizitza zuzkiduraren inguruko adostasun maila

Oinarria: elkarrizketatuak, guztira.



* Balorazio eskalaren batezbestekoa: 0 "Ez nago batere ados", 10 "Guztiz ados nago".

** Adostasun tasa: Guztiz+ Nahiko ados (%).

9

Landa ingurunearen despopulazioa; kezka maila eta Administrazioari egiten dizkioten eskaerak

9.1 Landa ingurunearen inguruko bizi igurikimenak

Landa inguruneko gazte nafarrek etorkizunera begira proiektatzen dituzten igurikimenetan, beren herrian bizitzen jarraitzeko nahia adierazi dute.

Gazteen % 67,8k beren herrian bizitzen ikusten dute beren burua, landa ingurunearekin duten loturaren erakusgarria izaki hori. Udalerriak zenbat eta biztanle gutxiago eduki, orduan eta handiagoa da gazteek bertan bizitzen jarraitzeko duten itzaropena. Itzaropen hori handia da, baita ere, herrikoak diren eta beti bertan bizi izan diren gazteen artean.

Etorkizunean beren burua landa ingurunean ikusten ez dutenak batez ere bi faktoreren eraginpean daude-la dirudi. Batetik, landa ingurunean

beren intereseko lan aukerarik ez dagoela aipa dezakegu; izan ere, aukera gehiago bermatzen dituzten hiri inguruneetara joatera bultzatzen ditu horrek. Halere, beren burua herrian bizitzen ikusten ez duten gazte askok hirian edo hiri ingurunean bizi nahi dute.


Igurikimenetan, sumatzen dituzten aukerak eta etorkizuna edozein izanik ere, gazteen % 48,0k beren herria aukeratuko lukete bizitzeko. Bestalde, % 26,0k Nafarroako beste udalerrri batzuk aukeratuko lituzkete, eta % 21,1ek hiriburua, Iruña. Badaude, baita ere, etorkizunera begira estatuko beste hiri batzuetan (% 14,1) edo atzerrian (% 8,5) bizi nahiko luke tenak.

Etorkizunera begira, herrian bizitzen ikusten duzu zeure burua?

Oinarria: elkarrizketatuak, guztira




Landa inguruneetako **≈ 28.342 gazteek** beren herri edo udalerrian bizitzen ikusten dute beren burua



Zergatik ez duzu ikusten zeure burua etorkizunean herrian bizitzen?

Oinarria: beren burua herrian bizitzen ikusten ez duten elkarrizketatuak (n=193).



Zeure burua herrian bizitzen ikusi zein ez, non gustatuko litzaizuke bizitzea?

Oinarria: elkarrizketatuak, guztira.



Landa inguruneetako **≈ 20.065 gazteek** beren herri edo udalerrian bizi nahiko lukete etorkizunean.

	GUZTIRA (n=600)	BIZTANLERIA			ADIN TALDEA		
		1.000 biztanle bitarte (n=77)	1.001 eta 5.000 biztanle artean (n=352)	5.000 biztanle baino gehiago (n=171)	18 urtetik beheri (n=84)	18 eta 24 urte artean (n=280)	25 eta 30 urte artean (n=84)
Nire udalerrian	48,0%	59,6%	48,1%	42,5%	44,4%	41,7%	56,6%
Nafarroako beste herri batean	26,0%	26,4%	25,9%	26,1%	18,8%	29,6%	24,3%
Hiriburuan, Iruñean	21,1%	17,5%	22,5%	19,8%	21,5%	22,7%	19,0%
Estatuko beste hiri batean	14,1%	6,5%	14,5%	16,5%	14,5%	16,1%	11,6%
Atzerrian	8,5%	7,8%	7,4%	11,1%	16,0%	8,8%	5,5%
Oraindik ez dakit	0,6%	--	0,7%	0,8%	--	1,1%	0,3%

Erantzuteko aukerak iradoki ziren. Posible zen zenbait erantzun ematea.

9.2 Landa ingurunearen despopulazioaren gaineko kezka maila

Egiazki, landa inguruneko gazte gehienak kezkatuta edo larri daude landa eremuetan gertatzen ari den despopulazioagatik. Gazteen % 24,9k adierazi dute “oso kezkatuta” daudela, eta % 41,9k “nahiko kezkatuta” daudela. % 19,1 zertxobait kezkatuta dago, eta % 14,1 “ez dago oso kezkatuta” edo “batere kezkatuta”.

Landa munduaren hustuketarekiko larritasuna handiagoa da 1.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan eta 5.000 biztanletik goitiko herrietan bizi diren gazteen artean. Hala ere, korrelazio argia ikus dezakegu goi mailako ikasketak amaitu izanaren eta egoiliarren hustuketarekin kezkatuta egotearen artean.


Beren ustez, despopulazioaren aurkako borrokan, landa ingurunean lan aukera gehiago sortzea da funtsezkoena, halaxe adierazi baitute % 18,7k. Baita honako hauek ere:

gazteei etxebizitza ingurune horietan alokatu edo erosteko laguntzak ematea (% 11,3) eta garraio sarea hobetzea, linea berriak sortu eta ezartzea eta ordutegietan maiztasuna handitzea, distantziak hurbiltzeko (% 10,3), landa migrazioa eta, hortaz, despopulazioa eten nahi badira.

Etxebizitzari dagokionez, gazteen % 8,6k uste dute landa ingurunean dauden mugaketak kendu behar direla, bai etxebizitza eskuratzea erraztuz (etxebizitzen parke handiagoa eraiki edo zuzkitu), bai Administrazioak prezioak erregulatzeko edo etxebizitza hutsak merkatura salgai edo alokairuan ateratzeko bestelako esku hartzeak eginez. Ondoren, zerbitzu zuzkidura handiagoa sortzea eta gazteei begirako aisialdi jarduerak ugaritzea aipatu dute, baita herritarrei oinarritzko zerbitzuak hornitzea ere (hala nola, hezkuntza eta osasun zerbitzuak).




Zein neurritan kezkatzen zaitu landa inguruneen despopulazioak?

Oinarria: elkarrizketatuak, guztira.



Zein neurritan kezkatzen zaitu landa inguruneen despoblazioak?

Oinarria: elkarrizketatuak, guztira.




* Gutxienezko 0, «ez nau batere kezkatzen»; gehieneko 10, «asko kezkatzen nau».

9 Landa ingurunearen despopulazioa; kezka maila eta administrazioari egiten dizkieten eskaerak

Zure ikuspegiaren arabera, zein dira landa eremuen despopulazioaren kontra borrokatzeko oinarritzko alderdiak?

Oinarria: elkarrizketatuak, guztira.



* Erantzun irekia.

Zure ikuspegiaren arabera, zein dira landa eremuen despopulazioaren kontra borrokatzeko oinarritzko alderdiak?

Oinarria: elkarrizketatuak, guztira.

	GUZTIRA (n=600)	ADIN TALDEAK	
		18 urtetik beheri (n=84)	18 eta 24 urtean (n=280)
Lan aukera / lan gehiago	% 18,7	% 11,1	% 14,4
Landa eremuan etxebizitza erosteko eta alokatzeko laguntzak	% 11,3	% 3,7	% 7,6
Garraio publikoaren sarea hobetu eta ezartzea	% 10,3	% 8,3	% 13,3
Landa eremuetan etxebizitza eskuratzeko erraztasunak (etxebizitza gehiago, prezioak jaitsi...)	% 8,6	% 5,0	% 8,1
Zerbitzu hornidura handiagoa (dendak, zerbitzuak...)	% 8,2	% 16,3	% 6,6
Gazteendako aisialdi jarduera gehiago	% 7,2	% 12,4	% 9,0
Gazteendako laguntzak	% 5,5	% 0,7	% 4,9
Oinarritzko zerbitzuak bermatzea (hezkuntza eta osasuna)	% 4,7	% 4,4	% 5,3
Landa eremuko bizitza transmititu, komunikatu, sustatu eta bultzatzea	% 4,1	% 5,8	% 5,7
Sare konexioak, konektagarritasuna	% 2,4	% 3,6	% 2,4
Ingurunea zaintzea / Herrietan inbertitzea / Funtsak ematea	% 2,3	% 3,2	% 1,7
Gazteak atxikitzea / Gazteak erakartzea	% 1,7	% 1,8	% 1,9
Etxebizitza zaharberritzeko laguntzak	% 1,5	-	% 0,6
Landako enpresaburuendako laguntzak	% 1,0	% 2,4	% 0,5
Industria hornitzea / Industria lurraldean banatzea	% 0,8	-	% 0,6
Errepideetan inbertitzea	% 0,8	-	% 0,9
Emantzipatzeko laguntzak	% 0,7	-	% 1,3
Telelanari bide egitea	% 0,7	-	% 0,8
Landa turismoari laguntzea	% 0,6	% 4,5	-
Izapide administratiboak deszentralizatzea	% 0,3	% 1,0	% 0,3
Autoenplegua sustatzea / Ekintzailetzarako laguntzak	% 0,1	-	-
Bestelakoak	% 4,6	% 2,7	% 3,8
Ez daki / Ez zaio bururatzen	% 28,9	% 34,7	% 33,5
Ns/nc	% 0,4	% 1,7	-

* Erantzun irekia.

9.3 Landa ingurunekeo gazte nafarren ahotsa; bizi kalitatea hobetzeko asmoz Administrazioari egiten dizkieten eskaerak

Nafarroako Gobernuak landa inguruneetako bizi kalitatea hobetze aldera har ditzakeen neurriez edo abia ditzakeen jarduera motez galde-tu diegu gazte nafarrei, eta erantzun asko eman dizkigute:

† Gazteen % 12,9k uste dute Nafarroako Foru Komunitateko hiri-

gune txikiei zerbitzu ematen dien garraio publikoaren sarea hobetu beharko litzatekeela, ordutegiak eta maiztasunak areagotuta, distantziak mugatzen eta ibilgailu pribatuarekiko mendekotasuna murrizten lagunduko lukeelako horrek eta, ondorioz, gazteen bizi kalitatea hobetu.

9 Landa ingurunearen despopulazioa; kezka maila eta administrazioari egiten dizkieten eskaerak

DEA		BIZTANLERIA		
urte (n)	25 eta 30 urtean (n=236)	1.000 biztanle bitarte (n=77)	1.001 eta 5.000 biztanle artean (n=352)	5.000 biztanle baino gehiago (n=171)
	% 26,3	% 19,6	% 17,3	% 21,1
	% 18,3	% 17,7	% 11,0	% 9,0
	% 7,6	% 16,7	% 9,4	% 9,3
	% 10,7	% 16,0	% 8,0	% 6,6
	% 7,1	% 12,6	% 7,4	% 7,8
	% 3,0	% 4,0	% 8,0	% 6,8
	% 7,9	% 2,0	% 7,4	% 3,4
	% 4,0	% 6,4	% 3,6	% 6,1
	% 1,6	% 0,9	% 6,2	% 1,3
	% 2,0	% 6,9	% 1,2	% 3,0
	% 2,7	% 1,3	% 3,0	% 1,3
	% 1,4	-	% 1,9	% 2,0
	% 3,2	% 2,6	% 1,4	% 1,3
	% 1,1	% 0,8	% 1,5	-
	% 1,4	% 1,0	% 0,9	% 0,7
	% 0,8	% 0,7	% 1,1	-
	% 0,3	-	% 0,9	% 0,7
	% 0,8	% 0,8	% 0,6	% 0,7
	-	-	-	% 2,2
	-	-	-	% 1,0
	% 0,3	-	-	% 0,5
	% 6,3	% 9,3	% 4,2	% 3,4
	% 21,5	% 15,0	% 30,8	% 31,5
	% 0,4	% 1,8	% 0,3	-

Batezbestekoaren gainetiko balioak.


- ✦ **% 11,7k esan dute Administrazioak** bermatu egin beharko lukeela oinarritzko zerbitzuak egotea, zentzu zabalean (bankuko sukurtsalak, dendak eta zerbitzuak oro har).
- ✦ **% 9,6ren ustez, ezinbestekoa da Administrazioak landa** ingurunean lanpostuak edo lan aukerak sortzea, hiri inguruneetarako mi-

grazioa mugatzea eta lurraldean oreka handiagoa egotea ekarriko lukeelako horrek.

- ✦ Hauteman dituzten beste premia batzuen artean, honako hauek daude: **gazte nafarrei zuzendutako baliabide soziokulturalak eta laguntza ekonomikoak oro har** (zehazki, etxebizitza eskuratzeari begirakoak).

Zure ustez, zer-nolako ekintzak, neurriak edo egitasmoak ezarri edo sustatu beharko lituzke Nafarroako Gobernuak, landatarren bizi kalitatea hobetzeko? *

Oinarria: elkarrizketatuak, guztira.



* Erantzun irekia.

* Erantzun irekitik abiatutako tag hodeia. Hitz bat zenbat eta gehiagotan aipatu, orduan eta handiago da.



Badira urte batzuk Nafarroako landa inguruneetako herritarrak pixkaka-pixkaka Iruñerriantz lekualdatzen ari direla; hortaz, landa inguruneak jendez husteko arriskuak goiti egi-ten jarraitzen du. Prozesu horretan, **bereziki beharrezkoa da gazteek landa ingurunean duten bizi espe-rientzia eta etorkizunera begira dauzkaten igurikimenak jorratzea.**

Ikerketa honi esker, landa inguru- neetako gazte nafarrak beren he- rriko bizimoduarekin oro har pozik daudela eta herriarekiko atxiki- mendu handia sentitzen dutela egiaztatuta ahal izan dugu. Hor, modu positiboan gailendu diren zenbait “balio landatar” aurkitu ditugu: la- saitasuna, kohesio sozial handia- goa eta naturarekin harreman han- diagoa duen bizi estiloa. Kohesio soziala komunitateko kide izatearen

sentimendu indartsua egotearen on- dorioa da, eta harreman sozial estu eta afektiboagoak edukitzeak sorra- razten du komunitateko sentimen- du hori.

Alabaina, landa ingurunekeo bizitzak alderdi txarrak ere baditu gazteen ustez, eta herri eta udalerrietan da- goen baliabide gabezia azpimarratu dute; izan ere, gabezi horren ondo- rioz joan-etorriak egin behar izaten dituzte etengabe, eta ibilgailu pribatuekiko mendekotasuna handie- gia da (garraio publikoarekikoa zer- txobait txikiagoa da).

Oinarrizko baliabideekiko “distan- tzia” hori, fisikoa zein, zenbaitetan, emozionala, agerikoa da kasu guztie- tan, baina izaera kritikoa hartzen du 1.000 biztanletik beheitiko udalerrie- tan bizi diren gazteen artean.

- ✦ **Herritarrendako baliabideen artean, gazteek garraio publikoaren sare egokia eskatzen dute gehien.** Elementu horrek, errepideetako azpiegiturak hobetzeko aukerarekin batera, paper garrantzitsua betetzen du Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde orekan, distantziak murrizten eta herrietan ez dauden aukerak eta baliabideak hurbiltzen dituelako.
- ✦ **Gazteek, era berean, zerbitzuen hornidura oro har hobetzen ahal dela adierazi dute:** bankuko zerbitzuak, kirol azpiegiturak, osasuna, Bigarren Hezkuntza, kultura eta gazteendako jarduerak, besteak beste.
- ✦ **Ikasketei dagokienez,** udalerritik irteten diren landa ingurunekeo gazteek 51 minutu eskaintzen dizkiote, batez beste, ibilbide bakoitzari. Gehienetan, egunero egiten dituzte joan-etorri horiek.
- ✦ **Landa ingurunekeo gazte nafarrek mugikortasun tasa altua dute askotariko eginkizunetarako.** Gehienak aisialdirako irteten dira herritik, eta Iruña da erakargune nagusia, hiriburua. Aisialdiko edukia herritik kanpo bilatzeko joera areagotu egiten da asteburuetan; izan ere, batez beste, aisialdiko denboraren % 50 beste udalerritara baitean igoazten dute.
- ✦ Zentzu horretan, gazteen % 46,8k esan dute beren **herrian antolatzen diren jardueretan ez dutela parte hartzen;** batik bat, denbora faltagatik, baina baita jarduerok beren interesekin bat egiten ez dutelako edo aukera hori planteatu ere egin ez dutelako ere. Puntu horretan, jatorrian landa ingurunekeoak ez diren baina gaur egun testuinguru horretan bizi diren gazteen motibazioa edo gizarteratze maila txikiagoak direla ematen du.
- ✦ Izan ere, **herriko bizitzarekin, harremanekin eta kohesio sozialarekin pozik daudela eta bizimodu horrekiko atxikimendua dutela adierazi duten arren, guzti-guztiek baieztatu dute gizarte landatarretan nolabaiteko kontrol soziala ezartzen dela, txanpon beraren beste alde bat bezala. Halaber, biztanle dentsitatea txikia izateak berdinekin harremanak edukitzea edo bikotekidea aurkitzea zailtzen die batzuei.**
- ✦ **Lan egiteko aukerei dagokienez,** oraindik lan merkatura sartu ez diren landa inguruneetako hamar gaztetik sei ezkor agertzen dira herrian bertan beren gustuko lana aurkitzeko aukeraren aurrean. Halere, % 60,3k adierazi dute pandemiaren ondorioz telelana areagotu izanak herrian bertan lan egiteko aukera berriak sortu dituela.

- † **Etorkizunera begira, landa inguruneko hiru gazte nafarretik batek ez du bere burua herrian bertan bizitzen ikusten (% 32,2).** Eta horrek, funtsean, bi arrazoi ditu oinarrian. Batetik, landa ingurunean beren intereseko lan aukerarik ez dagoela aipa dezakegu; izan ere, aukera gehiago bermatzen dituzten hiri inguruneetara joatera bultzatzen ditu horrek. Eta, bestetik, beren burua herrian bizitzen ikusten ez duten gazte askok hirian edo hiri ingurunean bizi nahi dute.
- † Aukeratu ahal izatekotan, gazteen % 48k hautatuko lukete borondatez beren herri edo udalerria, etorkizuneari bizitzeko toki gisa.
- † **Oro har, landa inguruneko gazte nafarrak nahiko kezkatuta daude Nafarroako udalerriri txikiak husten ari direlako arazoarekin, 6,9 puntu eman baitizkiote problematika horren gaineko kezka mailari, otik 10erako eskalan.**
- † Beren ustez, despopulazioaren aurkako borrokan, landa ingurunean lan aukera gehiago sortzea da funtsezkoena. Baita honako hauek ere: gazteei etxebizitza ingurune horietan alokatu edo erosteko laguntzak ematea eta garraio sarea hobetzea, linea berriak sortu eta ezartzea eta ordutegietan maiztasuna handitzea, distantziak hurbiltzeko.
- † **Etxebizitzari dagokionez, gazteek uste dute landa ingurunean dauden mugaketak kendu behar direla,** bai etxebizitza eskuratzea erraztuz (etxebizitzaren parke handiagoa eraiki edo zuzkitu), bai administrazioak prezioak erregulatzeko edo etxebizitza hutsak lagatzeko bestelako esku hartzeak eginez. Era berean, zerbitzu zuzkidura handiagoa sortzea eta gazteei begirako aisialdi jarduerak ugartzea eskatu dute, baita herritarrei oinarrizko zerbitzuak hornitzea ere (hala nola, hezkuntza eta osasun zerbitzuak).

Nafarroako Gobernuak sustatzen ahal dituen egitasmoak aurretik aipatutako alderdi berberen ildokoak izan daitezke, eta honako jarduketaren ardatz hauek gailentzen dira: **lurralde kohesioa, landa inguruneetako gazteendako aukera berdintasuna, garraio publikoa, zerbitzuei eutsiko zaielako bermea, lan aukerak, gazteei begirako baliabide soziokulturalak eta etxebizitza eskuratzeko laguntzak.**

Gazteria eta landa ingurunea
Nafarroa 2022